

| | | | | | |
|---------------------------|----|------|------------|----------------|--------------------|
| Lurralde : invest. espac. | 43 | 2020 | p: 345-372 | ISSN 0211-5891 | ISSN 1697-3070 (e) |
|---------------------------|----|------|------------|----------------|--------------------|

“BARATZE BAT NAHI DEIZÛT EGIN...”

**BARATZE ETA LORATEGI URBANOAK
EUSKAL HERRIKO HIRIBILDU ETA BASTIDETAN
(XIV.-XIX. MENDEAK): TOKIKO PRODUKTU
FRESKOAK EKOIZTEA ANTZINAKO
ERREGIMENEAN**

JOSU NARBARTE HERNANDEZ

Arkeologoa.

Euskal Herriko Unibertsitatea. Geografia, Historiaurre eta Arkeologia Saila.
Ondare eta Paisaia Kulturalen gaineko Ikerketa-Taldea.

Justo Vélez de Elorriaga, 1 – 01005 Gasteiz (Araba)

Aranzadi Zientzia Elkartea. Zorroagaina, 11 – 20014 Donostia (Gipuzkoa)

ENEKO DEL AMO JIMÉNEZ

Ingurumen aholkularitza eta Tokiko Dinamizatzaile Agroekologikoa

ARITZ DIEZ ORNOZ

Arkitektoa.

Euskal Herriko Unibertsitatea. Arkitektura Saila. Arkitekturako
Proiektuak ezagutza arloko irakaslea.

Oñati Enparantza, 2 – 20018 Donostia – San Sebastián (Gipuzkoa)

Laburpena

Erdi Aroaz geroztik, hiribildu eta bastida txikiek garrantzia handia izan dute Euskal Herriaren egitura soziala, ekonomikoa eta territoriala egituratzeko orduan. Gune hauen merkataritza-eta gobernantza-funtzioen pisua ezaguna da. Bertan gauzatzen ziren laborantza-praktikak, aitzitik, ez dira sistematikoki ikertuak izan, nahiz eta iturri dokumentalak nahiz kartografikoak argiak diren baratze eta lorategi urbanoen presentzia adierazteko orduan. Hainbat hiribildu eta bastidaren kasuak adibide hartuta, lan honek hutsune hau betetzeko helburua du, bi

ataletan. Lehenik eta behin, baratze eta lorategi urbanoen kokapena aztertuko da, hirigune historikoen baitan. Bigarrenik, espazio hauetan lantzen ziren produktuak jorratuko dira, Erdi Aroko laborantza-ereduaren eta Aro Modernoko iraultza agronomikoaren arteko aldeak aintzatetsiz. Azkenik, ondorioetan produkzio-eredu honen izaera eta esanahia landuko dira.

Hitz-gakoak: Laborantza; Hiribildua; Bastida; Baratze urbanoak; Hirigintza; Hurbileko produktua; Merkaturatze-zirkuito laburrak; Euskal Herria.

« BARATZE BAT NAHI DEIZÜT EGIN... » JARDINES Y HUERTOS URBANOS EN LAS VILLAS Y BASTIDAS DEL PAÍS VASCO (SIGLOS XIV A XIX) : PRODUCTOS FRESCOS Y DE TEMPORADA EN EL ANTIGUO RÉGIMEN

Resumen

Desde la Edad Media, las villas y bastidas de pequeño o mediano tamaño han tenido una gran relevancia en la organización social, económica y territorial del País Vasco. El peso de las funciones comerciales y gubernativas en estos lugares es bien conocido. Sin embargo, hasta la fecha poco se han explorado las prácticas agrarias desarrolladas en los mismos, a pesar de que tanto las fuentes documentales como las cartográficas son claras a la hora de señalar la presencia de huertos y jardines urbanos. Tomando como ejemplo el caso de varias villas y bastidas, el presente trabajo se propone llenar este vacío, abordando dos cuestiones. En primer lugar, se tratará la localización de los huertos y jardines urbanos en el seno de las ciudades históricas. En segundo lugar, se analizarán los productos cultivados en estos espacios, distinguiendo entre el modelo agrario medieval y el derivado de la revolución agronómica moderna. Finalmente, en las conclusiones se abordarán las características e implicaciones de este modelo de producción agraria.

Palabras clave: Agricultura; Villa; Bastida; Huertos urbanos; Urbanismo; Producto de cercanía; Circuitos cortos de comercialización; País Vasco.

« BARATZE BAT NAHI DEIZÜT EGIN... » JARDINS ET POTAGERS URBAINS DANS LES BASTIDES ET VILLES-NEUVES DU PAYS BASQUE (XIVE-XIXE SIÈCLES) : DES PRODUITS FRAIS DE SAISON DANS L'ANCIEN RÉGIME.

Résumé

Depuis le Moyen Âge, les petites ou moyennes bastides et vielles-neuves ont eu une grande relevance dans l'organisation sociale, économique et territoriale du Pays Basque. La fonction commerciale et gouvernementale de ces lieux est bien connue ; au contraire, les pratiques agraires développées dans leur sein ont été, jusqu'à cette date, très peu explorées, malgré les nombreuses mentions et représentations de jardins et potagers urbains dans les sources écrites et cartographiques. Partant de l'exemple de quelques bastides et villes-neuves, le but de ce travail est de remplir ce vide, dans deux pas. D'abord, la localisation des jardins et potagers urbains sera examinée au sein des cités historiques. Ensuite, les produits cultivés dans ces espaces seront analysés, tout en considérant la transition entre les systèmes agraires médiévaux et ceux dérivés de la révolution agronomique de l'époque moderne. Enfin, les conclusions chercheront de discuter les caractéristiques et implications de ce modèle de production agricole.

Mots-clefs: Agriculture ; Villeneuve ; Bastide ; Potagers urbains ; Urbanisme ; Produits de proximité ; Circuits courts de commercialisation ; Pays Basque.


1. Sarrera

Europa hego-mendebaldeko joera orokorrari jarraiki, Erdi Aroaren amaieraz geroztik hainbat hiribildu eta bastida garatu ziren Euskal Herrian zehar (Tucoo-Chala, 1973; Abbé *et al.*, 2006; Jusué & Unzu, 2006; Urteaga, 2006), zenbaitek porrot egin zuten arren (Martínez, 2015). Industria Iraultza iritsi arte, gehienak aglomerazio txikiak izan ziren, baina dinamismo ekonomiko, sozial eta politiko nabarmena erakutsi zuten (adibid.: Tena, 1997; Arizaga, 2003), Nafarroa Behereko, Zuberoako, Bizkaiko eta, batez ere, Gipuzkoako erakundetze-prozesuan lehen mailako rola jokatzuz (Truchuelo, 1997; Goyhenetche, 1999).

Hiribildu eta bastida hauek, besteak beste, elkartruke komertzialetarako polo gisa funtzionatzen zuten, eskualde mailako komunitateentzako merkatu zentralak hartzeaz gain, Akitania, Ebro bailara, Gaztela eta ozeano Atlantikoa lotzen zituen bide-sarea artikulatzen baitzuten (Achón, 1998; Arizaga & Bochaca, 2003; Childs, 2003; Priotti, 2003) (1 irudia).

Zentraltasun politiko eta ekonomiko honekin batera, jakina da hirigune hauek inguruko lurraldeetako nekazal produktuak kontsumitzen zituztela (Arizaga, 1985). Jakina da, era berean, hirigune handienek —bereziki kostaldekoek— elikagaiak inportatu ere egiten zituztela. Adibiderik argiena zerealena da, kostako hainbat hiribilduetan “itsasoko ogia” delakoa inportatzen zen Europako beste herrialde batzuetatik, Akitaniatik edo Flandriatik adibidez (Bilbao & Fernandez de Pinedo, 1984). Ardoaren kasuan, berriz, esaterako Zumaia 1584ko ordenantzak adierazten dute ohikoa zela Andaluziatik edota Ribadabiatik ekartzea, bertako ekoizpenaren osagarri (Odriozola, 1998).

Alabaina, hirigune txiki hauek ez ziren nekazaritzarik gabeko espazioak. Iturri idatziek nahiz kartografia historikoak erakusten dutenez, haien egitura espazialean nahiz ingurugiroarekiko egokitzapen-ereduan garrantzia izan zuten nekazaritzarako espazio bereizgarriek, bereziki elikagai freskoen —fruta nahiz barazkien— ekoizpena xede zutenak. Industrializazioaren nahiz urbanizazioaren azken mendeko bilakaerak oro har espazio hauen desagerpena eragin duen arren, zenbait gunetan oraindik ere antzeman daitezke egungo paisaian.



1 irudia. Euskal Herriko hiribildu eta bastida nagusien kokapena, komunikazio-bide nagusiekin. Testuan zehar aipatutako lekuak gorritz nabarmenduta ageri dira. Oinarri kartografikoa: ESRI/Mugibili.

Elementu hauei ikerlariek ez diete ia inolako arretarik eskaini. Alde batetik, beren aztarna dokumentala eta materiala oso ahula delako. Bestetik, autokontsumora edo merkaturatze zirkuito oso laburretara bideratutako produkzio baten adierazgarri diren heinean, jarduera hauek ez direlako sartzen historiografiak tradizionalki landu izan dituen gaietan —artisansa eta protoindustria, elkartruke komertzialak, eskala-ekonomien artikulazio urbanoa, eta abar. Dena den, baratze eta lorategiek biodibertsitate handiko mikroinguruneak osatzen zituzten, tokiko populazioentzako elikadura-segurtasunaren nahiz aniztasunaren oinarri garrantzitsua osatuz (Eyzaguirre & Linares, 2004).

Lan honen xedea da, beraz, Euskal Herriko zenbait hiribildu eta bastidatan espazio eta jarduera hauek izan zuten kokapena, izaera eta dinamikak aztertzea. Horretarako, baratze eta lorategi urbano hauen kokapenaren zenbait adibide ematen saiatuko gara, iturri dokumentalak, kartografikoak eta katastroen analisiak uztartuz, eta denboran zehar izan duten bilakaera aintzat hartuz. Ondoren, espazio hauetan landu izan diren laboreak aztertuko ditugu, bi ataletan: Erdi Aroa, lehenik, eta Aro Modernoa, bigarrenik. Analisi hau iturri idatzien analisian nahiz erregistro arkeobotanikoen errebisio bibliografikoan oinarrituko da. Azkenik, ekoizpen-eredu honen esanahi ekonomikoa eta soziala jorratuko dugu, ekonomia urbano txiki hauetako merkaturatze-zirkuitu laburren testuinguruan tokiko produktu freskoen ekoizpena osagai garrantzitsua izan dela balioan jarriz.

2. Baratze urbanoak eta periurbanoak: zenbait adibide

Euskal Herriko hiribildu nahiz bastidetako baratze eta lorategi urbanoen kokapena ezagutzeko iturri desberdinak azter daitezke. Erregistro dokumentaletan, baratzeen aipamenak Erdi Aroaz gerostik topa daitezke, etxeen ingurumarian kokatutako lursail txiki gisa aipatuta. Adibidez, 1331. urtean Gaztelako Alfontso XI.ak Azkoitiko hiribildua bere jatorrizko kokapenetik Urola hegira aldatzeko baimena eman zuenean, lursail zabal bat eman zuen “para que lo partan entre sí los moradores que y veniesen a poblar para en que labren e se aprovechen d’ello así como de suyo” (Ayerbe, 1993: 6. dok.). 1348ko Segurako ordenantzetan, aldiz, auzoen ondasunak “casas e huertas” gisa definitzen dira (Diez de Salazar, 1985: 17. dok.). 1396an, Lekeitioko Santo Domingoren komentuari buruzko agiri batean, aldiz, halaxe aipatzen dira: “huertas que se adjuntan a las casas” (Enríquez *et al.*, 1992: 41. dok.). Hortaz, baratze hauek etxeen beraien hedapen bat osatzen duten espazio gisa ulertu behar ditugu, partikulariki kudeatuta eta ustiatuta, Euskal Herriko landa-guneetan ere ohikoa zen joerari jarraiki (Imizcoz, 2007).

Dena den, espazio hauen ezaugarriak ezagutzeko informazio-iturririk fidagarriena kartografia historikoa da. Erregistro hauek geografikoki nahiz kronologikoki mugatuta daude eta sarri oso eskematikoak izaten dira, haien helburua ez baita izaten biziguneak edo lorategiak irudikatzea, alderdi militarrik —harresiak, azpiegiturak— dokumentatzea baizik. Zenbait kasutan, ordea, dokumentu hauek informazio baliagarriak jaso ditzakete; hala gertatzen da

Hondarribiaren kasuan, adibidez. Espainiako eta Frantziako koroen mugan kokatuta egonik, Aro Modernoan zehar hiribildu honek etengabeko arreta jaso zuen bi aldeetako agintari militarren aldetik, eta hori produkzio kartografiko garrantzitsu batean islatzen da (adibidez: Izagirre, 1994; Gómez *et al.*, 1994). Hauen bidez, posible da hiribilduaren eta bere inguruen bilakaera ezagutzea, Aro Moderno osoan zehar.

1203ko fundazio-gutunaren garaitik, jatorrizko muinoaren perimetroa inguratzen zuten harresien baitan hedatu zen Hondarribiako hiri-egitura. Barruti hau bi erdi zehatzetan banatzen zen muinoaren topografiari eta lekuaren orientazioari jarraiki: hegoaldeko erdian — egungo San Nikolas eta Etxenagusia Margolari kaleen artean — etxebizitza eremuak kokatzen ziren eta iparraldean, baratzak nagusi ziren espazio zabal bat hedatzen zen. Etxadien tipologia eta dorretxeen kokapena kontuan hartuta, jatorrizko Erdi Eroko hiribildu honen zati urbanoan lehenengo hiri-nukleo txikiago bat antzeman daiteke (Arizaga, 1978). Erdi-Aroko harresiak perimetro berri bat ezarri zuenean, etxadien zonalde hau mendebalderantz hedatu zen.

XVI mende hasieran eraiki ziren harresi berriek berretsi egin zituzten Erdi Aroko hiribilduari ezarritako mugak (Fernández, 2002). Garai honetan, Erdi Aroko harresi zaharren murrak baliatuta gaur egungo Leiva Jenerala eta Murrua kaleek osatzen dituzten etxadiak sortu ziren baina, orokorrean, Hondarribiko hiri-egitura berdin mantendu zen. Hegoaldean, Kale Nagusiak ordurarte San Nikolas kaleak zuen garrantzia eskuratu zuen Txiplaoko itsasadarra zeharkatzen zuen dikea eraiki zuenean, hiribilduaren sarrera nagusia Santa Maria atera aldatuz eta ondorioz, hegoaldeko eta iparraldeko bi eremuen arteko bereiztasuna handituz. Zenbait eraikin isolatu iparraldeko eremu huts hau betetzen hasi ziren hurrengo mendeetan, inoiz hiri-egitura sendo bat osatu gabe.

Setioek eta hiribilduak XVIII. mendean zehar jasan zuen gainbeherak eragin zituzten aldaketa gehien Hondarribiko hiribilduaren egitura urbanoan. 1705eko plano frantses batean, harresien barneko nahiz kanpoko alde osoa baratzez josita ageri da, baita kuboak ere (2a irudia). 1719. urteko setioaren ostean eginiko kartografiek, aldiz, argi uzten dute nola hiribilduaren mendebaldeko eremuan — gaur egungo Juan Laborda Kaletik harresietara dagoen eremuan, harresien gertutasunaren ondorioz kalte gehien jasan zituzten eremuetan alegia — etxebizitza gehienak desagertu ziren (Azpiri, 2003). Konbentzio-gerrak egoera hori larritu besterik ez zuen egingo; 1795eko plano batean, adibidez, harresietako nahiz hauen kanpoaldeko baratzeak ez dira azaltzen, barnean hainbat etxe desagertu eta haien tokian baratzeak agertu diren artean (2b irudia). XX. mende Erdi Aroko ortogazkietan, oraindik, etxebizitza galera nabarmen hau ikus daiteke, batik batik hiribilduaren ipar sektorean (2c irudia); baina Manzano Monis arkitektoak 1960ko hamarkadan hasitako lanek itzulia emango zioten joera honi. Alde batetik, kontserbatu ziren etxadien zaharberritze eta berreraikitze lanekin; bestetik, hiribilduaren iparraldeko eremuan proposatutako esku-hartze berriarekin; eta, azkenik, Erreginariaren bastioiaren berreraikitze lanekin, Hondarribiko alde zaharrak gaur


arte luzatu den hedatze prozesu bati ekin zion (AAM, 1982). Egun, hiribilduaren Alde Zahar osoa guztiz urbanizatuta dago (2d irudia).



2 irudia. Hondarribiko baratze eta lorategi urbanoak. (a) 1705: Plan de la Forteresse de Fontarabie dans la province de Bicye en Espagne et a l'embouchure de la ruiere de Bidassoa. Iturria: Archives du Génie. Château de Vincennes, Paris (Izagirre, 1994). (b) 1795 (Konbentzio Gerraren ondoren): Plano de la Plaza de Fuenterrabia según se proyecta dejarlo, anonimoa. Iturria: Centro Geográfico del Ejército, Madril. (c) 1945-1946ko aireko argazkia. Iturria: GeoEuskadi. (d) 2017ko ortoargazkia. Iturria: GeoEuskadi. Hiribildua Alfonso VIII.ak fundatu zuen 1203an, Bidasoako estuarioa zaintzeko xedez (Larrañaga & Tapia, 1993: 3. dok.). Muino baten inguruan egituratuta dago, gailurrean Arma Plaza eta gaztelua dituela, eta multzo osoa harresi-sistema sendo batez babestuta dago. Baratzeak hiribilduaren ipar eta mendebaldean kokatuta egon izan dira, harresien barnealdeari atxikita; egun erabat desagertuta daude.

Hain modu argian ez bada ere, beste hiribildu batzuetan ere kartografia historikoak erakusten du baratze eta lorategi urbanoen presentzia. Esate baterako, Donostia bezalako portu-hiri handi batean oso nabarmenak dira XVIII. mendearen erdialdean oraindik ere baziren baratzeak, batik bat bi gunetan. Alde batetik, Isidro Prospero de Verbomek 1725ean sinatutako plano batean (Gómez *et al.*, 1994: 173. dok.), Urgull zolan hainbat baratze-gune agertzen dira, komunitate monastikoei lotuta: Gaztelupe inguruan, “Huerta de las monjas carmelitas” aipamena daraman espazio bat ageri da hormaz mugatuta; eta, hiriaren ipar-ekialdeko muturrean, San Telmo konbentuaren jabetzako baratze-espazio zabalak ikus daitezke. Beste aldetik, Juan Bernardo de Frosnek 1744an sinatutako beste plano batean, San Telmoko baratzeak ez ezik, hiriaren hego-mendebaldeko muturrean kokatuta zegoen San Filipe baluartearen barnean “Huerta del mayor de la plaza” gisa deskribatutako baratzea dago marraztuta, eta baluarte beraren inguruan, aldiz, “Huerta del gobernador” delakoa (3 irudia). Nabarmena da, Donostiako kasuan behintzat, espazio hauek hiriko elite militar eta eklesiastikoen esku zeudela, eta pentsa liteke etekin ekonomikoen iturri gisa funtziona zezaketela.

Ipar Euskal Herriko hiribildu eta bastidei dagokienez, Frantziako estatuak XIX. mende hasierako egindako lehen katastro sistematikoek informazio-iturri aberatsa osatzen dute, baratze eta lorategi urbanoak xehetasun handiz irudikatuta ageri baitira bertan. Bastidan (4 irudia), Bastidaxarren (5 irudia), Donibane Garaziko bi hirigune historikoetan (6 irudia) edota Maulen (7 irudia), adibidez, baratze-sailak etheen atzealdeari atxikita daude, plaza edo kale nagusi batzuen inguruan egituratutako trama urbanoetan irla itxiak eratuz nahiz haien inguruan koroa gisa antolatuturik. Gipuzkoan edota Bizkaian ere antzeko formazioak kontserbatu dira katastroetan fosilizatuta, batez ere industrializazioa eta hedapen urbanistikoa mugatuak izan diren lekuetan. Baratze-koroa hauek harresien barnealdean topa daitezke, Azkoitian adibidez (8 irudia); baina baita kanpoaldean ere, Hernaniko (9 irudia) edota Segurako Zerkaldeko (10 irudia) terraza artifizialeetan bezala.



3 irudia. Donostiako baratze eta lorategi urbanoak. *Plano de la Plaza y Puerto de San Sebastián*, Juan Bernardo de Fros, 1744. Baratze eta lorategiak bi tokitan kokatuta azaltzen dira soilik: hiriarren hegomendebaldean (San Telmo konbentuaren inguruan) eta iparekialdean (Gobernadorearen kuboaren inguruan). Iturria: Centro Geográfico del Ejército, Madril. Hiriarren okupazio-arrastoak, gutxienez, erromanizazio garaitik dokumentatu diren arren (Urteaga & Arce, 2011), Nafarroako Antso VII. erregeak eman zion hiri-gutuna 1089an (Martín Duque, 2002). Erdo Aroan eta Aro Modernoan zehar, gune komertzial eta militar garrantzitsu gisa garatu zen (Tena García, 1997), harresi-sistema sendo batek mugatuta (Ceberio & De Miguel, 2018).




4 irudia. Bastidako baratze eta lorategi urbanoen kokapena. (a) 1835eko katastro napoleonikoa. Iturria: earchives.le64.fr (kontsulta: 2019/04/26). (b) Egungo orto-argazkiaren gaineko fotointerpretazioa. Oinarri kartografikoa: GeoEuskadi. Datu katastralak: Géoportail. Bastida Nafarroako errege Luis I.ak fundatu zuen, 1312an emandako hiri-gutunaren bidez, eta jada 1329ko zerrenda fiskalek aipatzen dute harresien barnean bazirela *cazalots* edo baratzeak (Force *et al.*, 2013). Hirigunea karrika eta plaza zentral banaren inguruan antolatuta dago, muino baten magalean, goialdean eliza dagoelarik. Etxeen eta baratzeen korrespondentzia oso argia da, eta hauetako asko terrazen bidez artifizializatuta eta hesiz itxita ageri dira.



5 irudia. Bastidaxarreko baratze eta lorategi urbanoen kokapena. (a) 1800eko katastro napoleonikoa. Iturria: earchives.le64.fr (kontsulta: 2019/04/26). (b) Egungo orto-argazkiaren gaineko fotointerpretazioa. Oinarri kartografikoa: ESRI. Datu katastralak: Géoportail. Bastidaxarre Biarnoko bizkontesa Margarida Montcadakoak fundatu zuen 1292an, lehenagotik bazegoen herri baten gainean (Tucoo-Chala, 1973). Hiriguneak almendra itxurako planoak dauka, bi kale nagusiren inguruan egituratuta. Baratzeak etxeen atzealdean atxikita ageri dira.



6 irudia. Donibane Garaziko baratze eta lorategi urbanoen kokapena. (a) 1800eko katastro napoleonikoa. Iturria: earchives.le64.fr (kontsulta: 2019/04/26). (b) Egungo orto-argazkiaren gaineko fotointerpretazioa. Oinarri kartografikoa: ESRI. Datu katastralak: Géoportail. Bertan herri bat lehenagotik ere bazen arren, hiribildua XIII. mendean egituratu zen, Iruñerantz zihoazen trafikoak zentralizatzeko xedez, Nafarroako erregeek hainbat foru eta pribilegio eman zizkiotelarik: Tibalt I.ak 1234an, Filipe Évreuxkoak 1329an eta Karlos II.ak 1355ean eta 1367an, besteak beste (Bidart, 1991). Hiribildua bi gune historikotan banaturik dago. Alde batetik, Errobiren eskuinaldean, zitadelaren babespean, jatorrizko hirigunea dago, kale luze baten gisan egituratua eta harresiz babestua; baratzeak kalearen bi aldeetako etxeei atxikita ageri dira, arrain-hezur itxurako plano eratu. Errobiren ezkerrean, aldiz, San Mixel auzoa dago, XIII. mendean egituratuta bastida berrien modura; bertan ere baratzeak antzematen dira etxeen atzealdeetan, baina 1800eko katastroarekiko urbanizazioa nabarmena izan da.



7 irudia. Mauleko baratze eta lorategi urbanoen kokapena. (a) 1810eko katastro napoleonikoa. Iturria: earchives.le64.fr (kontsulta: 2019/04/26). (b) Egungo orto-argazkiaren gaineko fotointerpretazioa. Oinarri kartografikoa: ESRI. Datu katastralak: Géoportail. Berant Erdi Aroko agirietan, Mauleko hiria gazteluaren menpeko burgu nahiz bastida gisa dokumentatuta azaltzen da (Berdoy & Lavigne, 2009). Hiriguneak lauki itxurako plaza bat osatzen du, muino batean kokatuta; bere kokapena defentsarako egokia den arren, harresirik ez da kontserbatu, baina baratzeek ohiko koroa osatzen dute etxeen inguruan, gehienak terraza artifizialen bidez eraikita eta hesiz itxita.



8 irudia. Azkoitiko baratze eta lorategi urbanoen kokapena. Oinarri kartografikoa: GeoEuskadi. Datu katastralak: Gipuzkoako Ogasuna. Hiribildua sortzeko baimena Gaztelako errege Alfontso XI.ak eman zien Iraurgi haraneko biztanleei 1324an (Ayerbe, 1993: 4. dok.), baina 1331ean lekuz aldatzea erabaki zuten, Urola ertzeko egungo kokapenera (Ayerbe, 1993: 6. dok.). Hiribildua ibaiaren paraleloan antolatutako kale luze baten moduan egituratuta dago, beraz. Aipatutako 1331ko agirian, erregeak lursail bat ematen du, hiribilduko biztanleen artean banatu eta baratzeak egiteko; hauen arrastoak izan litezke zenbait etxeren atzean, ibaiaren ertzean, egun ere ikus daitezkeen lorategi txikiak.



9 irudia. Hernaniko baratze eta lorategi urbanoen kokapena. Oinarri kartografikoa: GeoEuskadi. Datu katastralak: Gipuzkoako Ogasuna. Hiribilduaren fundazio-gutunik kontserbatu ez den arren, Hernani toponimoaren aipamenak, bailara gisa ulertuta, Goi Erdi Arotik datoz (Insausti, 1974). XIV. mendearen azken laurdenerako, argi dago hiribildua osatuta zegoela (Arizaga, 1978; Urteaga, 2006). Baratzeak hiribilduaren ekialdean kontserbatu dira. Harresiaren inguruan kokatuta daude, korroa moduko bat osatuz



10 irudia. Segurako baratze eta lorategi urbanoen kokapena: Zerkaldea. Oinarri kartografikoa: GeoEuskadi. Datu katastralak: Gipuzkoako Ogasuna. Hiribildua Gaztelako Alfontso X. erregeak fundatu zuen 1290ean (Díez de Salazar, 1985: 1. dok.), eta 1384an jurisdikzio zabala lortu zuen hainbat herriren anexoari esker (Díez de Salazar, 1985: 55.-64. dok.). Urte batzuk lehenago, 1348an, kontzejjuak ordenantza-arauak emanak zituen (Díez de Salazar, 1985: 17. dok.); bertan, auzoen ondasunak ethez zein baratzez osatzen zirela zehazten da, baina azken hauen kokapenik ez da aipatzen. Hiribilduak almendra itxura dauka, muino baten hegalean egituratuta eta goialdean eliza duela. Baratze-sailak Zerkaldekoko terrazetan topatzen dira, laborantzarako eraikitako terraza artifizialetan.

3. Barazkiak eta frutak ekoiztea Erdi Aroaren amaieran: aniztasuna arau

Iturri dokumentalek zenbait kasutan eman dezakete baratze hauetan lantzen ziren produktuen berri. Gipuzkoako edota Bizkaiko hiribilduak XIV. mende bukaeratik ematen hasi ziren ordenantza-arauetan, adibidez, sarri aipatzen dira baratzeak (*huertas / huertos* eta *bergeles*, gaztelaniaz). Eusko Ikaskuntzaren *Fuentes Documentales del País Vasco* bilduman eta beste argitalpen batzuetan plazaratutako erregistroetatik abiatuta, agiri hauetan azaltzen diren laboreen aipamenak jasotzen ditu 1. Taulak.

| | | Segura | Deba | Zestoa | Markina | Urduña | Plentzia | Zumaia |
|---------------------------|---|--------|------|--------|---------|--------|----------|--------|
| | | 1348 | 1434 | 1483 | 1506 | 1506 | 1508 | 1584 |
| BARAZKIAK | (Baratzeen aipamen generikoak) | √ | √ | √ | √ | √ | √ | √ |
| | Tipula <i>Allium cepa</i> | | √ | √ | | √ | | |
| | Baratxuria <i>Allium sativum</i> | | √ | √ | | | | |
| | | | | | | | | |
| | Porrua <i>Allium ampeloprasum</i> var. <i>porrum</i> | | √ | √ | | √ | | |
| | Aza <i>Brassica oleracea</i> | | √ | √ | | √ | | |
| | Letxuga <i>Lactuca sativa</i> | | | | | √ | | |
| | Sagarra <i>Malus domestica</i> | √ | √ | √ | √ | √ | √ | |
| | Lima <i>Citrus[*] aurantifolia</i> | | √ | | | | | |
| | Laranja <i>Citrus[*] sinensis</i> | | √ | | | | | √ |
| Pikua <i>Ficus carica</i> | | √ | | | | | √ | |
| FRUTAK | Gerezia <i>Prunus avium</i> | | √ | | | √ | | |
| | Ginga <i>Prunus cerasus</i> | | √ | | | √ | | |
| | Arana <i>Prunus domestica</i> | | √ | | | | | |
| | Mertxika <i>Prunus persica</i> | | √ | | | | | |
| | Udarea <i>Pyrus communis</i> | | √ | | | | | |
| | Mahatsa <i>Vitis vinifera</i> | | √ | √ | | √ | √ | |

1. Taula. Gipuzkoako eta Bizkaiko hiribildu desberdinen ordenantza-arauetan (XIV.-XVI. mendeak) jasotako barazkien eta fruten aipamenak. Iturriak: Segura, 1348 (Díez de Salazar, 1985: 17. dok.); Deba, 1434 (Herrero & Barrena, 2005: 33. dok.); Zestoa, 1384 (García, 1997); Markina, 1506 (Enríquez, 1989: 34. dok.); Urduña, 1506 (Enríquez et al., 1994: 47. dok.); Plentzia, 1508 (Enríquez, 1988: 21. dok.); Zumaia, 1584 (Odriozola, 1998). Hondarribiko eta Elgoibarko erregistro arkeobotanikoetan identifikatutako espezieak (Peña-Chocarro et al., 2014) beltzez nabarmendu dira.

Ikusten denez, lursail hauen laborantza produktu freskoetan oinarritzen zen, eta hauek bi multzotan sailka daitezke: barazkiak, alde batetik, eta frutak, bestetik.

3.1. Barazkiak

Aipatzen diren laboreak ia berdinak dira beti: tipula, porrua, baratxuria, aza eta, neurri apalagoan, letxuga. Espezie hauek guztiak Ekialde Hurbilean etxekotu zituztela dirudi, ia denen labore-zantzuak agertu baitira gutxienez Kalkolitoaz geroztik; salbuespena aza da, haren laborantzaren arrastorik zaharrenak Antzinarokoak baitira (Zohary et al., 2012). Sasoi desberdinetako produktuak izanik, haien txandaketak urte osoko zikloa osatzeko aukera eskaintzen du; gainera, biziguneez hurbiltasunak laborantza intentsibo bat gauzatzea errazten du (Van der Veen, 2005), besteak beste errautsak eta etxeko hondakinak ongari gisa baliatzeko aukera ematen baitu.

Tamalez, Euskal Herrian momentuz oso ikerketa gutxi egin da Erdi Aroaren ondorengo erregistro arkeobotanikoen inguruan, eta zaila da idatzizko agiriek erregistro materialetan islarik ote duten frogatzea. Argitaratutako lanen artean, aipatzekoak dira Hondarribiko nahiz Elgoibarreko XV. eta XVI. mendeetako hiru aztarnategitan bildutako erregistroak, kanpotik ekarritako zereal eta basa-espezieekin batera, baratze edota lorategietan landutako produktu freskoen aztarna ugari topatu baitira bertan. Arrasto hauen artean, ordea, barazkien kopurua eta aniztasuna oso urriak izan dira: azen familiako ale bakan batzuk (*Brassica/Sinapsis* sp.), kuia (*Lagenaria siceraria*) eta kukurbitazeoen bihazi (*Cucumis melo/sativus*) (Peña-Chocarro et al., 2014). Jakina, arrasto hauek beren kontsumo-testuinguruan jaso ziren, eta ez dago modurik jakiteko zeintzuk ekoiztu ziren hiribilduan bertan eta zeintzuk ekarri zituzten inguruko lurraldeetatik.

3.2. Frutak

Baratzeez gain, frutarbolen aipamenak ere ohikoak dira arakatutako erregistro dokumentaletan. Agiriek aipatzen duten fruten kopurua eta aniztasuna harrigarriak dira. Aztertutako laginean gutxienez hamar espezie desberdin identifika daitezke, horietako lau *Prunus* generokoak (arana, gerezia, ginga eta mertxika), bi zitriko (laranja eta lima), eta gainerakoak mahatsa, sagarra, pikua eta udarea (1. Taula).

Datu hauek modu harrigarrian datoz bat erregistro arkeobotanikoekin. Elgoibarko nahiz Hondarribiko indusketetan jasotako materialen artean, hazirik ohikoena *Prunus* generoari dagozkio: erregistro dokumentalen bidez identifikatutako lau espezieak dira nagusi (*P.*

persica, mertxika; *P. cerasus/avium*, gerezia edo ginga; eta *P. domestica/insititia*, arana), eta hauei elorri beltza (*P. spinosa*) gehitzen zaie. Sagarra, mahatsa eta pikua Hondarribian soilik dokumentatu dira, azken biak kopuru handietan. Erregistro dokumentaletan islarik ez duten bi espezie ere azaldu dira, modu apalean izan arren: mizpira (*Mespilus germanica*) eta irasagarra (*Cydonia oblonga*), azken hau Iberiar penintsulako lehen kasua (Peña-Chocarro *et al.*, 2014). Badira, gainera, argi eta garbi kanpotik ekarritako produktuak: adibiderik argiena oliba (*Olea europaea*) da, txarki hazten baita Euskal Herri atlantiarreko baldintza topoklimatikoetan.

Iturri idatzietan nahiz erregistro arkeobotanikoetan identifikatu diren produktuak momentu desberdinetan sartu ziren eskualde honetako laborantza-sistemetan:

- Europako hainbat tokitan haietako zenbaiten bilketa Neolitoaz geroztik praktikatzen arren, *Prunus* generoko espezieak Asian etxekotu ziren, eta badirudi haien laborantza Antzinaroan zabaldu zela (Zohary *et al.*, 2012). Euskal Herrian, labore hauen arrastorik zaharrenak Irungo aztarnategi erromatarrean agertu dira (Peña-Chocarro & Zapata, 1996; 2005), baina une horretatik aurrera oso datu gutxi dago.
- Antzeko zerbait esan daiteke mizpirari buruz, Asian etxekotu eta Antzinaroan zabaldu baitzen Europan zehar; hala ere, haren arrastoak oso eskasak dira, eta bere bilakaera nekez berreraiki daiteke (Pollmann & Jacomet, 2012).
- Udarea, sagarra edota mahatsa, aldiz, espezie endemikoak dira Euskal Herrian (Aizpuru *et al.*, 2010). Azken bi produktuen laborantza XI. mendeaz geroztik dokumentatuta dago lurralde honetan (adibidez: Lekuona, 2013), eta oso ohikoak dira haien aipamenak Behe Erdi Arotik aurrera, laborantza espezializatu baten testuinguruan, hots sagardogintzari eta ardogintzari lotuta. Hala, gauza jakinak dira, besteak beste, hiribildu nahiz bastiden inguruko eskualdeetan garrantzia ekonomiko handia izan zutela txakolingintzarako mahastiek (Aragón, 1999; Arrizabalaga & Odriozola, 2005; Corcuera & González, 2007; Rivera, 2011) edo, XVI. mendetik aurrera, eskualde hauetako baserri asko sagardo-ekoizpenean espezializatu zirela (Santana, 2001). Mahatsaren kasuan, hain zuzen ere, aipagarria da Hondarribiko Panpinot kalean, XVI. mendeko testuinguru arkeologiko batean ale-kontzentrazio bereziki altuak bildu direla, ardo-presa bati lotuta (Peña-Chocarro *et al.*, 2014).
- Azkenik, zitrikoen kasua nabarmendu behar da, ebidentzia arkeobotanikorik ez dagoen arren, iturri dokumentalak argiak baitira: 1434ko Debako ordenantzak lima eta laranja aipatzen ditu (Herrero & Barrena, 2005: 33. dok.), eta 1584ko Zumaiako araudiek hiribilduan laranjadiak daudela zehazten dute (Odriozola, 1998). Bi barietate hauek Asia hegoaldeko espezie endemikoak etxekotzearen ondorioz sortutako hibridoak dira (Roose *et al.*, 1995) eta, Antzinaroan mendebaldeko Mediterraneoan dokumentatu izan diren arren (Bouby & Ruas, 2014), Europan Goi

Erdi Aroan sartu zirela dirudi, Afrika iparretik Iberiar penintsulan barna (Ramón-Laca, 2003).

4. Aro Modernoko iraultza agronomikoaren islak baratze eta lorategi urbanoetan?

Europa osoan bezala, Aro Modernoa aldaketa garaia izan zen, Euskal Herrian ere, gizartearen nahiz ekonomiaren sektore guztientzako, eta noski nekazaritzarentzako ere (Bilbao & Fernández de Pinedo, 1984; Aragón, 2015). Oro har, Ameriketako produktuen sarrerak, eta batik bat artoak, baserri-paisaiaren eraldaketa bat eragin zuela onartzen da, laborantza-sistema intentsiboagoak ezartzeko eta ordura arte okupatu gabeko lur berriak lantzeko aukera eskainiz (Narbarte, 2019). Garaiko aldaketa sozial eta ekonomikoek hiriguneetako baratze eta lorategietan izan zuten eragina, berriz, askoz gutxiago ikertu da.

Desmarta ekonomikoak zein demografikoak eragindako presioagatik ere (adibidez: Piquero, 1991), zalantzarik ez dago Aro Modernoan fruta nahiz barazki freskoak ekoizteko espazio bereizgarriak ez zirela desagertu Euskal Herriko hiribildu eta bastidetatik. Halaxe erakusten du, behinik behin, XVIII. mendeko kartografiak (2 irudia), baita espazio hauen arrastoak katastroetan egun arte mantendu izanak ere (3-8 irudiak). Hala ere, honek ez du esan nahi noski espazio horiek aldagaitz mantendu zirenik, beren ekoizpen-eredua baldintza sozio-ekonomiko berrietara egokitu zutela baizik.

Honen adibiderik argiena labore berrien inplantazioa izan liteke. Ameriketatik ekarritako espezie exotikoen artean, gehienak ezagunak ziren Europan dagoeneko XVI. mendearen bigarren erdian, garaiko herbarioek jasotzen dutenez (adibidez: Mattioli, 1544; Gerard, 1597); baina ez dago oso argi noiz eta nola txertatu ziren modu egonkorrean tokiko laborantza-zikloetan eta dietan. Hala ere, nabarmena da haietako askok, azken buruan, izugarrizko arrakasta eduki zutela, egun produktu 'tipiko' izatera iritsi direlarik: halaxe gertatzen da tomatearen kasuan (*Solanum lycopersicum*), edo eskualde jakin batzuetako baserrietan produktu espezializatu ere bilakatu diren babarruna (*Phaseolus vulgaris*) edota piperra (*Capsicum annum*).

Are gehiago, jakin badakigu, kasu batzuetan behintzat, hiriguneetako baratze eta lorategietan espezie berrien esperimentazioa ere gauzatu izan zela, patataren kasuan adibidez. Jatorria Andeetan daukan produktu hau (*Solanum tuberosum*) XVIII. mende amaieran iritsi zen, dirudenez, Irlandatik Euskal Herrira, Europako beste herrialde batzuetan ordurako aspalditik ezagutzen zuten arren; 1765etik aurrera, Hondarribian sartu zutela dirudi, eta handik gutxira Bilbo inguruan edota Deba garaian ere aipatzen da (Berriochoa, 2014; 2015).

Euskal Herrian patata-laboreen lehen aipamenak, dena den, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak —*Bascongada* famatuak— 1771 eta 1793 artean egindako urteroko Batzarren aktetan jasota daude, *Extractos de las Juntas Generales celebradas por la Real Sociedad*

Bascongada de los Amigos del País izenburupean. Hemen 1777., 1779., 1780. eta 1781. urteei dagozkienak interesatzen zaizkigu, bertan jasotzen baita labore berria egonkortzeko Bergaran egindako lehen esperimendu sistematikoen berri, Rafael Garitano Aldaeta erretorearen ekimenez. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearekin harremanetan egoteaz gain, badakigu apaiz honek Europako beste herri batzuetan egindako aurrerapenen berri zuela —esaterako, Antoine-Augustin Parmentier higienista frantsesaren lanak ezagutzen zituen, patatarekin irina egitea proposatuz (Parmentier, 1773; 1779)— eta horregatik erabaki zuela patata-laboreekin esperimendatzen hastea. Erretoreak bere baratzeke bi sail hautatu zituen patatekin esperimendatzeko. Bertan, gainerako fruituak, garia, artoa nahiz arbia, hondatu egiten omen ziren, paraje ospela zelako, jendea etengabe pasatzen zelako eta, etxea hurbil egonik, oilo eta oilaskoek haziak jaten zituztelako. Urte gutxian, aleak modu harrigarrian ugaritzea lortu zuela dirudi, eta labore berria bizkor zabaldu zen Bergara inguruko eskualdeetan, Euskal Herri osoko baserrietan ohiko produktu bilakatzeraino (Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, 1777; 1779; 1780; 1781).

5. Ondorioak

Elikadura oinarrizko auzia izan zen Antzinako Erregimenean Euskal Herriko hiribildu eta bastiden bilakaeran. Komunitate urbano berrietara biztanleria erakarri eta bertan finkatzeko orduan, elikagaien hornidura udal agintarien kezka eta ardura izan zen, bake sozialaren eta espezializazio ekonomikoaren ezinbesteko baldintza gisa. Horretarako, inguruko lurraldeen kontrola ez ezik, tokiko produkzioa ere sustatu ahal izan zuten, bereziki produktu freskoen hornidura ziurtatzeko xedez.

Mendeen joanean, hiribildu eta bastida hauek askoren hazkunde demografikoak jatorrizko planifikazio urbanistikoa itxuraldatu du, etxebizitza-sareak trinkotuz eta zenbait kasutan jatorrizko hiriguneen mugak erabat gaindituz (adibidez: Urteaga, 2006). Beste kasu batzuetan, aldiz, fundazioek porrot egin zuten eta hiriguneak abandonatuta gelditu ziren (Martínez, 2015). Hala ere, kartografia historikoaren nahiz egungo katastroen azterketaren bidez, oraindik posible da gune askotan baratze eta lorategien presentzia antzematea, hiri-ingurune hauek konplexutasunaren eta funtzio-aniztasunaren lekuko. Bertan, elikagaien ekoizpena, elkartrukea, prozesatzea eta kontsumoa beste jarduera batzuekin nahasten ziren, trama urbano kaleidoskopikoak eratuz.

Baratze eta lorategi urbano hauen kokapena eta bertan landu izan diren produktuak kontutan hartuta, hiru ezaugarri nagusi deskriba daitezke. Lehenik eta behin, espazio hauek *laborantza intentsibo* baten testuinguruan ulertu behar dira. Kasu askotan, baratzeak terraza artifizialetan kokatuta daude, topografia naturala eraldatu delarik higadura gutxitzea eta ureztapena erraztea bermatzeko xedez; egitura hauen eraikuntzak eta mantenuak baliabide

zein lan-esku inbertsio handiak eskatzen dituzte, eta etekin handiko ekoizpen batera bideratuta egon ohi dira (adibidez: Ballesteros *et al.*, 2006; Harfouche, 2007; Krahtopoulou & Frederick, 2008; Fernández *et al.*, 2014; Ferro *et al.*, 2014). Hala erakusten du, hain zuzen ere, espazio hauek erabat indibidualizatuta, itxitura eta hesien bidez mugatuta egoteak (Abella, 2016). Era berean, etxebizitzekiko hurbiltasunak laborantza intentsiboa gauzatzea errazten du, lan eta ongari input gehigarriak bideratzeko aukera ematen baitu (Van der Veen, 2005).

Bigarrenik, aztertutako baratze eta lorategi urbanoetan *laborantza dibertsifikatu* bat gauzatzen zela ikusi dugu, bai landutako produktuen aniztasunaren aldetik eta baita produktu horien ziklo begetatiboei dagokienez ere. Edozein laborantza-ekosisteman, porrot-arriskua gutxitzeko estrategia izan ohi da dibertsifikazioa (Marston, 2011); izan ere, zenbat eta produktu desberdin gehiago landu, orduan eta aukera handiagoa egongo baita krisi baten aurrean (adibidez: uza txarrak, izurriteak, muturreko gertaera klimatikoak eta abar) gutxienez haietako batek edo batzuek aurrera egin ahal izateko. Halako sistema bati esker, produktu freskoak —barazkiak eta frutak— urte osoan zehar ekoitz zitezkeen, tokiko populazioentzako halako elikagaien hornidura segurtatuz. Nabarmenezkoa da, halaber, hiribildu txiki hauetan bat egin zutela laborantza-tradizio honek eta merkatal bideetan zehar iritsitako produktu berriek, Euskal Herrian laborantza-produktu berriak sartu ahal izateko beharrezkoa zen esperimentazioa sustatuz.

Azkenik, azpimarratzekoa da eskala txikiko laborantza-eredu honen *izaera deszentralizatu*a eta, honi lotuta, *malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna*. Euskal Herriko hiribildu eta bastidetako baratze zein lorategiak hurbileko ekonomia baten parte ziren; bertan kontsumitzeko ekoizten zuten, familiaren autokontsumorako nahiz zirkuitu laburretan merkaturatzeko, tokiko eskalan betiere. Eredu hau inguruko landa-eremuetako sistema produktiboen —baserrien— konplementu gisa ulertu behar da, eskala desberdinetako elkartruke-sare konplexu eta dinamikoen testuinguruan, azoka eta ferien fenomenoak erakusten duen gisan. Ikuspuntu honetatik, hirigune txiki hauen erresilientzia-gaitasuna egungoena baino nabarmen handiagoa zatekeen, hurbileko testuinguru batean modu deszentralizatuan garatutako sistema produktibo heterogeneo eta osagarriari esker.

Erreferentziak

Abbé, J.L., Baudreu, D., Berthe, M., 2006. Les villes neuves médiévales du sud-ouest de la France (XI-XIII siècles). *Boletín Arkeolan* 14, 1-36.

Abella, I., 2016. *La memoria del paisaje*. Bilbo: Libros del Jata.

Achón Insausti, J.A., 1998. Historia de las vías de comunicación en Gipuzkoa. 2/ Edad Moderna (1500-1833). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Aizpuru Oiarbide, I., Catalán Rodríguez, P., Garin García, F., 2010. Guía de árboles y arbustos de Euskal Herria. Bilbo: Eusko Jaurlaritz.

Aragón Ruano, A., 1999. Los podavines: labradores jornaleros en San Sebastián durante los siglos XV a XVIII. Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián 33, 7-38.

Aragón Ruano, A., 2015. El sector agrario guipuzcoano en la encrucijada de los siglos XVI y XVII. Lurralde: investigación y espacio 38, 89-116.

Arízaga Bolunburu, B., 1978. El nacimiento de las villas guipuzcoanas en los siglos XIII y XIV; morfología y funciones urbanas. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.

Arízaga Bolunburu, B., 1985. El abastecimiento de las villas vizcainas medievales: política comercial de las villas respecto al entorno y a su interior. En la España medieval 6, 293-316.

Arízaga Bolunburu, B., 2003. Las actividades económicas de las villas marítimas del norte peninsular. Las sociedades urbanas en la España Medieval: XXIX Semana de Estudios Medievales, Estella, 15 a 19 de julio de 2002, 195-242.

Arízaga Bolunburu, B., Bochaca, M., 2003. El comercio marítimo de los puertos del País Vasco en el Golfo de Vizcaya a finales de la Edad Media. Itsas Memoria 4, 41-54.

Arrizabalaga Marin, S., Odriozola Oyarbide, L., 2005. Ardoa Gipuzkoan. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Ballesteros Arias, P., Criado-Boado, F., Andrade-Cernadas, J.M., 2006. Formas y fechas de un paisaje agrario de época medieval: A Cidade da Cultura en Santiago de Compostela. Arqueología Espacial 26, 193-225.

Berdoy, A., Lavigne, E., 2009. Mauléon (Soule, Pyrénées Atlantiques) et son château: éléments pour une nouvelle lecture chronologique. Archéologie des Pyrénées Occidentales et des Landes 28, 57-73.

Berriochoa Azcárate, P., 2014. "Para limpiar las colmenas (...) una cuerda de clavicordio". Agrarismo en los inicios de la Bascongada (I). Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País 70, 115-162.

Berriochoa Azcárate, P., 2015. Empirismo agrario en la Bascongada (y II). Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País 71, 269-314.

Bidart, P. (ed.), 1991. Le pays de Cize. Baigorri: Izpegi.

Bilbao Bilbao, L.M., Fernandez de Pinedo Fernandez, E., 1984. La producción agrícola en el País Vasco peninsular, 1537-1850. Tendencia general y contrastes comarcales : una aproximación. Vasconia: Cuadernos de historia – geografía 2, 83-198.

Bouby, L., Ruas, M.P., 2014. Adding diversity. Between occasional food and speculative productions: diversity of fruit uses, diversity of practices regarding fruit tree cultivation. Hemen: Chevalier, A., Marinova, E., Peña-Chocarro, L. (eds), Plants and People. Choices and Diversity through Time. Oxford: Oxbow Books.

Ceberio Rodríguez, M., De Miguel Lesaca, M., 2018. Nuevas aportaciones al conocimiento de las primeras murallas modernas de San Sebastián Gipuzkoa (1477-1529). Munibe Antropología-Arkeología 69, 311-332.

Childs, W.R., 2003. Commercial relations between the Basque Provinces and England in the Late Middle Ages, c. 1200-c. 1500. Itsas Memoria, 4, 55-64.

Corcuera, M., González, M., 2007. Chacolí = Txakolina. Donostia: Nerea.

Díez de Salazar Fernández, L.M., 1985. Fuentes Documentales Medievales del País Vasco. Colección Diplomática del Concejo de Segura (Guipúzcoa) (1290-1500). Tomo I (1290-1400). Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Enríquez Fernández, J., 1988. Fuentes Documentales Medievales del País Vasco. Colección Documental de la Villa de Plencia (1299-1516). Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Enríquez Fernández, J., 1989. Fuentes Documentales Medievales del País Vasco. Colección Documental del Archivo Municipal de Marquina (1355-1516). Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Enríquez Fernández, J., Hidalgo de Cisneros Amestoy, C., Lorente Ruigómez, A., Martínez Lahidalga, A., 1992. Fuentes Documentales Medievales del País Vasco. Colección Documental del Archivo Municipal de Lequeitio. Tomo I. (1325-1474). Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Enríquez Fernández, J., Hidalgo de Cisneros Amestoy, C., Lorente Ruigómez, A., Martínez Lahidalga, A., 1994. Fuentes Documentales Medievales del País Vasco. Colección Documental del Archivo Municipal de Marquina (1355-1516). Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, 1777. Extractos de las Juntas Generales celebradas por la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Koldo Mitxelena Liburutegia (Donostia), FG 53810.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, 1779. Extractos de las Juntas Generales celebradas por la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Koldo Mitxelena Liburutegia (Donostia), FG 53810.

Euskalerriaren Adiskideen Elkarte, 1780. Extractos de las Juntas Generales celebradas por la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Koldo Mitxelena Liburutegia (Donostia), FG 53810.

Euskalerriaren Adiskideen Elkarte, 1781. Extractos de las Juntas Generales celebradas por la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Koldo Mitxelena Liburutegia (Donostia), FG 53810.

Eyzaguirre, P.B, Linares, O.F., 2004. Home Gardens and Agrobiodiversity. Washington DC: Smithsonian.

Fernández Antuña, C., 2002. Hondarribiko harresiak. Hondarribia: Hondarribiko udala.

Fernández Mier, M., Fernández Fernández, J., Alonso González, P., López Sáez, J.A., Pérez Díaz, S., Hernández Beloqui, B., 2014. The investigation of currently inhabited villages of medieval origin: Agrarian Archaeology in Asturias (Spain). *Quaternary International* 346, 41-55.

Ferro-Vázquez, C., Martínez-Cortizas, A., Nóvoa-Muñoz, J.C., Ballesteros-Arias, P., Criado-Boado F., 2014. 1500 years of soil use reconstructed from the chemical properties of a terraced soil sequence. *Quaternary International* 346, 28-40.

Force, P., Adot Lerga, A., Dufourcq, P., 2013. Nuevas villas e inmigración en la Navarra medieval. *El Fuero fundacional de La Bastide Clairence (1312)*. *Príncipe de Viana* 257, 237-279.

García Fernández, E., 1997. La villa guipuzcoana de Cestona a través de sus ordenanzas municipales de 1483. *Historia. Instituciones. Documentos* 24, 173-200.

Gerard, J., 1597. *The Herball, or, Generall Historie of Plantes*. John Norton, London. Online ikusia (2019-02-04): biolib.de

Gómez Piñeiro, J., Orella Unzue, J.L., Sáez García, J.A., Roldán Gual, J.M., Aramburu, J.M., 1994. Documentos cartográficos históricos de Gipuzkoa. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Goyhenetche, M., 1999. *Histoire générale du Pays Basque. Tome 2 : évolution politique et institutionnelle du XVIème au XVIIIème siècle*. Baiona: Elkarlanean.

Harfouche, R., 2007. *Histoire des paysages méditerranéens terrassés: aménagements et agriculture*. *British Archaeological Reports International Series* 1634. Oxford: Archaeopress.

Herrero, V.J., Barrena, E., 2005. *Fuentes Documentales Medievales del País Vasco*. Archivo Municipal de Deba. I. (1181-1520). Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Imízcoz Beunza, J.M., 2007. *Voisinage et habitat dans les communautés des Pyrénées occidentales entre le XVe et le XVIIIe siècles : de la croissance au blocage*. Hemen:

Barraqué, J.P., Sénac, P. (ed.), Travaux du groupe RESOPYR III. Habitats et peuplements dans les Pyrénées au Moyen Âge et à l'Époque Moderne, 327-352. Flaran: CNRS-Université de Toulouse Le Mirail.

Insausti, S., 1974. División de Gipuzkoa en valles. Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián 8, 219-231.

Izaguirre Igifiz, M., 1994. Cartografía antigua y paisajes del Bidasoa. Irun: Ed. M. Izaguirre.

Jusú Simonena, C., Unzu Urmeneta, M., 2006. Villas nuevas en Navarra (siglos XII-XIV): proceso urbanizador. Boletín Arkeolan 14, 139-162.

Krahtopoulou, A., Frederick, C., 2008. The stratigraphic implications of long-term terrace agriculture in dynamic landscapes: polycyclic terracing from Kythera Island, Greece. *Geoarchaeology* 23, 550-585.

Larrañaga Zulueta, M., Tapia Rubio, I., 1993. Colección Documental del Archivo Municipal de Hondarribia. Tomo I (1186-1479). Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Lekuona Ilundain, A., 2013. Gipuzkoako lehen agirietarako hurbilketa Behe Erdi Aroko artxiboetako informazioen bitartez: toponimoen hustuketa monasterioen lurralde-logika ulertzeko tresna bezala. Tolosa: Gipuzkoako Artxibo Orokorra. José Ignacio Tellechea Idígoras Beka.

Marston, J.M., 2011. Archaeological markers of agricultural risk management. *Journal of Anthropological Archaeology* 30, 190-205.

Martín Duque, Á.J., 2002. El Fuero de San Sebastián: Traducción manuscrita y edición crítica. *Príncipe de Viana* 227, 698-716.

Martínez Martínez, S., 2015. Villas fracasadas en el desarrollo urbano medieval del País Vasco. Santander: Kantabriako Unibertsitatea.

Mattioli, A.P.G., 1554. *Pietri Andreae Matthioli Medici Senensis Commentarii*, in *Libros sex Pedacii Dioscoridis Anazarbei, de Materia Medica, Adjectis quàm plurimis plantarum & animalium imaginibus, eodem authore*. Vincenzo Valgrisi, Venice. Online ikusia (2019-02-04): play.google.com/books/reader?id=isRCAAAAcAAJ&printsec=frontcover&output=reader&hl=es&pg=GBS.PP8

Narbarte Hernandez, J., 2019. Late Medieval and Modern Settlement Dynamics in Three Atlantic Basque Villages: An Approach on the Rural Landscape. Hemen: Grau Sologestoa, I., Quirós Castillo, J.A. (ed.), *Arqueología de Época Moderna en el País Vasco*. Oxford: Archaeopress.

Odrizola Oyarbide, L., 1998. *Zumaiaren Historia*. Zumaia: Zumaiako Udala.

Parmentier, A.A., 1773. Examen chimique des pommes de terre, dans lequel on traite des parties constituantes du blé. Paris: Didot le jeune.

Parmentier, A.A., 1779. Manière de faire le pain de pommes de terre, sans mélange de farine. Paris: Imprimerie Royale.

Peña-Chocarro, L., Alkain, P., Urteaga, M., 2014. Wild, managed and cultivated plants in Northern Iberia: an archaeobotanical approach to medieval plant exploitation in the Basque Country. *European Journal of Post Classical Archaeologies* 4, 131-156.

Peña-Chocarro, L., Zapata, L., 1996. Los recursos vegetales en el mundo romano: estudio de los macrorrestos botánicos del yacimiento Calle Santiago de Irún (Guipúzcoa). *Archivo Español de Arqueología* 69, 119-134.

Peña-Chocarro, L., Zapata, L., 2005. Trade and new plant foods in the Western Atlantic Coast: the Roman Port of Irun (Basque Country). Hemen: Urteaga Artigas, M., Noain Maura, M.J., Mar Exterior. El Occidente Atlántico en época romana, Actas del Congreso Internacional (Pisa, 6-9 noviembre 2003), 169- 177. Erroma: Escuela Española de Historia y Arqueología en Roma-CSIC.

Piquero Zarauz, S., 1991. Demografía guipuzcoana en el Antiguo Régimen. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Pollmann, B., Jacomet, S., 2012. First evidence of *Mespilus germanica* L. (medlar) in Roman Switzerland. *Vegetation History and Archaeobotany* 2(1), 61-68.

Priotti, J.P., 2003. El comercio de los puertos vascos peninsulares con el noroeste europeo durante el siglo XVI. *Itsas Memoria* 4, 193-206.

Ramón-Laca, L., 2003. The introduction of cultivated *Citrus* to Europe via Northern Africa and the Iberian Peninsula. *Economic botany* 57.4., 502-517.

Rivera Medina, A.M., 2011. La civilización del viñedo en el primer Bilbao (1300-1650). Coruña: UNED / Netbiblo.

Roose, M.L., Soost, R.K., Cameron, J.W., 1997. *Citrus*. Hemen: Smartt, J., Simmonds, N.W. (ed.), *Evolution of crop plants* (2nd ed.), 443-448. London: Longman.

Santana Ezkerra, A. (ed.), 2001. Euskal Herriko baserriaren arkitektura. Bilbo: Eusko Jurlarritza.

Tena García, M.S., 1997. La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500). Donostia: Instituto Doctor Camino de Historia Donostiarra.

Truchuelo, S., 1997. La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI - XVII). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Tucóo-Chala, P., 1973. Les bastides et villes-neuves dans les Pyrénées occidentales. Pau: CDDP.

Urteaga Artigas, M.M., 2006. Censo de las villas nuevas medievales en Alava, Bizkaia y Gipuzkoa. Boletín Arkeolan 14, 37-98.

Urteaga Arce, M.M., Arce, J., 2011. Erromatar arkeologia Gipuzkoan. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Van der Veen, M., 2005. Gardens and fields: the intensity and scale of food production. World Archaeology 37.2, 157-163.